

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko azaroaren 16a

Egunkaria

Gehigarri honetan



**Baztan** • Auzolanean eginiko eraikinetako portzionisten artean arazo ugari izaten dira  
**Andoni Iso** • «Nafarroako Gazte Kontseiluak ez du galdu gazte taldeen bat-batekotasuna»

## Ibaietako apar zikina garbitzen



• GURELUR

Gure herrietako ibai eta errekek ez ditugu oraindik behar bezala zaintzen; traste zaharrak uretara botatzeko ohiturari eusten diogu, eta horrek guztioi egiten digu kalte. Baina hori ez da ibaiek pairatzen duten kutsadura bakarra, ezta larriena ere: lixibiatu eta mindak ere egunero ailegatzen dira gure erreketara. Ibaien egoeraren arazoaz ohartzeko, Bidasoa errekaen Eguna antolatu du biharko Aizkolegi taldeak.



Lizarra •

# Adio 'txiringito'-ari

Soziolinguistika Jardunaldiak antolatu ditu hirugarrenez Bidasoa Ikerketa Zentroak



Udazkeneko egun hauetan Los Llanos parkeko txiringitoak argazkiko itxura du. • JOXE LACALLE

**Txiringitoa** laster botako dutela jakinarazi dute udal agintariek. Haren orde, kafetegi estalia eraikiko dute. Herritarren artean hainbat iritzi daude: aldekoak eta kontrakoak. Haatik, denek maitekiro ikusten dute txoko berezi hori.

**E**GA IBAIAREN BAZTERREAN, makal eta alboen babespean eta Los Llanos berdegunearen bihotzean dago La Hormiga (xinaurria) izeneko taberna txoa. Denek txiringitoa esaten badiote ere, azken kudeatzaileek izen berezi hori jarri zioten. Lizarrako biztanle guztiek udako egun gorietan eseri dira txiringitoaren kanpoaldean, ezarria freskatzeko asmotan. Leku berezia da, kuttuna, aspalditik

dago hor eta eraisteak ika-mika aunitz sortu du herritar eta udal taldeen artean.

Udal agintarien erranetan, aurki botako dute kioskotxo eta, haren orde, urte osoan irekita egonen den kafetegi eraikiko dute. Taberna berri hori Iruñeko Vienas tankera-koa izanen dela ere aurreratu dute eta, orotara, 80 bat metro karratu izanen ditu. Eraikin berria egiteko aurrekontua

zortzi milioi pezetakoa da (400.000 libera) eta, La Hormigaren leku berean eraiki beharrean, iturri zaharraren ondoan egiteko asmoa erakutsi dute agintariek.

Ukaezina da txiringitoa zaharraren egoera ez dela guztiz egokia, baina jende askorentzat egokiagoa da bertan konponketa txiki batzuk egitea, eraikin berria egitea baino. Txiringitoa udako lau hilabeteetan baino ez

zen irekitzen: ekain, uztail, abuztu eta irailean, hain zuzen ere. Udal agintarien arabera, aldiz, kafetegi berria urte osoan egonen da zabalik.

### Alderdien iritzi kontrajarriak

Arestian erran bezala, udal taldeek iritzi kontrajarriak erakutsi dituzte egunotan gai honen inguruan. Agintean dagoen UPN alderdiarentzat, beharrezkoa zen eraikin duin bat egitea, «batez ere eremu honetan komunak egon daitezken; izan ere, parkean ez dago komun bakar bat ere», adierazi zuen Jesus Alfaró zinegotziak. PSNk ere egoki deritza eraikin berriari, baina, haren ustez, taberna soila izateaz gain, ekitaldiak ere antolatu beharko lituzkete kudeatzaile berriek. Batasuna alderdiaren ustetan, ez da beharrezkoa eraikin berria botatzea. «Hemendik oso hurbil bertze tabernak daude eta jendeak erraz jo dezake bertara», erran zuen Bittor Iriarte zinegotziak. Hala ere, txiringitoaren ondoan komunak jartzearen aldekoak direla adierazi zuen. EAKo zinegotzi Jaime Garinen aburuz, aldiz, taberna berria txikia eta kuttuna izan beharko luke. «Ez legoke ongi berdegune honetan eraikin handi eta zabal bat egitea». IU alderdiarentzat, berriz, ingurumenaren gaia zorrotzaz hartu behar da aintzakotzat, eta eraikinaren kokalekua aztertzeko eskatu du. Azkenik, CUE-LKB taldearentzat, eremu horretarako dagoen urbanismo plan berezia ardatz izan behar dela jakinarazi du eta, haien ustez, eraikin berria egitea ez da komenigarria.

Iritziak iritzi, aurki botako dute txiringitoa.

→ Kristina Berasain

### Pirinioak

## Larrazkeneko ele eroriak

LARRAZKENEKO KOLOREA PRObestuz, pagoa, haritza edo gaztainondoarena, larrazkeneko arrats ttipiak musikaz eta irudiz alaitzeko, ekitaldi sorta ederra antolatu du Etxabarrengo kultur elkarteak. Bihar, larunbatarekin, Pirinioak-Harmonia izenburuko diaporama emanaldia eskainiko dute, 6x2 metroko pantailan, 4 proiektorekin. Muntaia J.R. Agirre Marronek egina da, Imanol Agirre- ren gidoi baten gainean. Pantailaratzea 20:30ean eginen dute, Aribeko Juntetxean. Ondoren, bazkide eta gonbidatuekin afaria izanen da elkarteak Garraldan duen egoitzan. Sarrera 200 pezetakoa da, eta egunean bertan erosten ahal da.



Ordu eta leku berean, azaroaren 24an, Mikel Urdangarinen kontzertua izanen da; abenduaren 7an, Mikel Markez eta Pako Aristiren azken muntaia; eta abenduaren 15ean, Ruper Ordorikak bere azken diskoa aurkeztuko du. Kontzertuetako sarre- rak 500 pezetakoak dira.

Etxabarrengo kultur elkarteak 1993an sortu zen, eta egun 50 bat bazkide ditu, Aezkoa, Erroibar, Auritz eta Luzaidekoak. Inguruan kultur ekitaldi guti egiten zenez, Etxabarrengo jendea biltzeko eta bertako kultura nolabait bultzatzeko sortu zen. Zenbait urtetan makal ibili bada ere, aurten indarberri- tutik etorri da, eta erakuske- ta, mintzaldiak eta bertso afaria antolatzeaz gain, urte bukaerarako kontzertu sorta erakargarria prestatu dute.

→ Asier Azpilikueta

### irulegitik

JOJO BIDART



## Erabakien ordua da

**i**parraldeko hiri nagusietako burraso gehienek beren haurrek euskara eskolan ikas dezaten nahi dute. Galdea ez da berria, baina aldi honetan Frantziako Hezkuntza Nazionalak parte hartu du galdeketa antolamenduan eta, berak dioen bezala, Frantziako CSA ikerketa zentroak egin lana zientifikoki serioa eta segura da.

Egia erran galdera soziala argiki erakusten dute jadanik egina izan diren inkesta soziolinguistikoek, baina Euskal Herriko ikerketa zentroen lana ez omen zen, gure administrazio kargudunen arabera, behar bezalako baldintza zientifikoetan egina.

Aldi honetan Frantziako ikerlariak baieztatzen dute Euskal Herriko ikerlarien lana. Estaturik ez da gehiago: burraso gehienek euskaraz erakasten duten eskolak nahi dituzte, eta,

gainera, hori frogatua da euskara gutienik erabilia den, baina iparraldeko jende gehiena biltzen duten hiru hiri nagusietan.

Eztabaida antzuak bazterturik, bigarren urratsa egiteko ordua da: duda izpirik gehiago ez duen galde sozialari ihardetsi behar da.

Denbora aitzina doa, egoera diglosiko honetan euskarak duen funtzioa eta eremua tipituz, adineko euskaradunak eramanen. Gure Hizkuntza galtzeari buru egiteko erabakiak hartzeko ordua da, eta erabaki nagusietarik bat euskarazko erakaskuntza zabaltzea da.

Duela hiru urte jada, iparraldeko gizarteko partaideek adostu eta hautetsiek onartu Garapen Eskeman aipatua zen euskarazko erakaskuntza eskaintza bikoiztea, eta horretarako berrehun

bat erakarle berri moldatu behar zirela ondoko sei urteetan.

Hiru urte pasa dira! Hastapeneko xedea gainditzen duen galde soziala baieztatuta da berriz ere.

Erantzunak etortzekoak dira!

Ondoko hilabeteetan beste inkesta soziolinguistiko bat eginen da Euskal Herri osoan, aitzinekoen segidan. Emaizak konparatuko ditugu duela sei urteko datuei.

Nahiz ez den sekulan orain bezainbat euskararen aldeko elkarte eta egiturarik izan gure eskualdean, segur da ez dugula euskararen gainbehera zuzendu, eta euskaradunen adin piramide gero eta hertsia goa dela.

Zenbakiak ukanen ditugu mahai gainean, zientifikoki gurutatuak, frogatuak eta baieztatutak.

Baina orain urrunago joatea galdegiten dute jende gehienek. Funtsezko Hizkuntz Politika bat xutik ezarri behar da galde sozialari erantzuteko.

# Baztan • Portzionisten arteko tirabirak

Baztango herri gehienetan jabe ugari dituzten eraikinak daude eta horrek arazoak sortzen ditu



Amaiurko errota, 52 portziotan banatua. ● RAKEL GOÑI

**Baztanen, garai batean, lan ugari egiten ziren auzolanean. Etxe bakoitzeko langile batek herriarentzako eraikina egiten lagundu behar zuen, eta, horren truke, etxeak eraikin berriaren zati edo portzio bat jasotzen zuen. Horrek arazoak sortu ditu.**

**H**ERRIAK BEHAR ZITUEN ERAIKINAK auzolanean egiten ziren lehen Baztanen. Herri gehienetan, edozein lan egitea proposatzen bazen, etxe guztiak zeuden langile bat bidaltzera behartuak. Horrela, errota, eskolak, harraskak, herriko etxeak eta bertze eraikin aunitz egiten zituzten. Langile horiek egiten zuten lanaren truke, etxeak eraikinaren portzio edo zati bat jasotzen zuten.

Askotan ez da horren idatzirik gelditu ere. Bertze kasuetan paperek ez dute legezko baliorik. Zortea izan dutenek etxearen eskritoretan idatzia dute zein eraikinen zatiaren jabe diren. Hor hasten dira arazoak. Ahoz aho pasatu direnak edo baliorik gabeko paperetan idatziak dauden jabegoak ezin dira salerosi, ezta konpondu ere. Eraikin aunitz gaizki daude. Arizkongo errota, adibidez, aspaldi erori zen. Zorionez, bertze zenbait herritan ados jarri dira konponketak hasteko bederen.

## Portzionista aunitz

Bigarren arazoa portzionisten kopurua da. Kasurik onenean 30 dira, okerreanean 100 portzio baino gehiago ditu eraikinak. Hori bileretan ados jartzeko koxka bat da. Legeak dioenaren arabera, ez da berdinean elkarrekin izatea edo portzionisten taldea izatea. Bileretan edozein elkarrekin, bozketa egiten badu, bigarren deialdian gehiengoa nahikoa izaten du gaia onartzeko. Portzionisten kasuan denek baietza beharrezkoa da proposamen bat aitzinera ateratzeko.

Erratzuko ostatua saltzeko berriki bilera egin zuten portzionistek. Denen artean pertsona bat bakarrik azaldu zen salmentaren aurka. Solasaldi luze ba-

ten ondotik gizonak saltzea erabaki zuen, baina hala erabaki ez balu? Azkenean, ostatua lurrera etorriko zen eta zuen balio urri hori erabat galduko zuen.

Garai batean oso estimatuak ziren portzioak. Gehienetan etxearekin bat pasatzen ziren eskuz esku. Etxea salduz gero, portzioa harekin saltzen zen. Gaur egun, ordea, aunitzek uste dute portzioak «arazoak izateko» bertzerik ez dutela balio.

Egoera legezkatu nahi izan dute toki askotan, baina dirutza handiak ordaindu behar dira paperak legezkoak izateko. Elbeteko ostatuaren kasuan ere ez dago batere argi zeintzuk diren portzionistak. Aspaldiko paperetan zerrenda ezberdinak agertu dira eta orain zaila da afera hori konpontzea.

Konponbidea zaila da, baita ados jartzea ere. Agian, lege aldaketa edo moldaketa batek aunitz lagunduko luke. Dena den, garai batean bezala auzolaneko deia egiten denean etxe bakoitzak pertsona bat bidaliko balu, gauzak desberdinak izanen liriteke.

→ RAKEL GOÑI

## Amaiurko errotaren kasua

AMAIURKO ERROTAK 52 PORTZIO DITU. JABEA GUXTIAGO DIRA, ZENBAITEK ZATI BAT BAINO GEHIAGO DUTELAKO. ASPALDI ZEBILTZAN ERROTA SALDU NAHIRIK, BAINA DUELA LAU EDO BORTZ URTE EGINDAKO BILERAN PORTZIONISTA BATEK SALTZEAREN KONTRA BOZKATU ZUEN. «ABOKATUEK IZAN ZITEZKEEN ATERABIDEAK AZALDU ZIZKIGUTEN.

Batetik, ezetz erran zuenari portzioa desjabetzen ahal zitzaien. Bertzetik, errota konpontzea izanen zela bidea erran ziguten. Herrian haserretik ez izateko bigarren egitea hautatu genuen», azaldu du Juan Mari Aleman, Amaiurko errotaren portzionista eta arduradunak. Nafarroako Gobernuak,

jarraian, konponketa egitea eskaini zien; horren truke, errota 25 urtez eman beharko zuten portzionistek. Azkenean, ados jarri ziren amaiurtarrak. «Errota 1500. urtea baino lehenago hor zela badakigu eta ez gara gu izanen lurrera erortzen utziko dugunak», aipatu du Alemanek. Baztango Udalak eraikina jantziko du. Nafarroako Gobernuak solairu bat gehiago egin nahi du, azpialdean museo egin eta gainean etxebizitza eraikitzeko. Turista aunitz hurbiltzen dira urtero Amaiurrera oroigarria, eliza edo arkua bera ikustera. Laster eskaintza horri herriko errota ikusteko aukera gehituko zaio.



Elizondoko Jaime Urrutia karrikako etxe batean ageri den plaka oroigarria.

● RAKEL GOÑI



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Udazkeneko iratxoa

Gaur gauekoa ongi azaltzeko beste gauza batzuk azaldu beharko ditut aurretik. Hasteko, aspaldian irakurri nuen gauzatxo bat aipatu beharko dut. Euskal sinesmenen gaineko liburu potolo batean izan zen. (Badakizue: baserrietan egin ohi diren inkestatxoez baterik egoten diren horietako batean). Bertan ez dakit-nongo baserriar bat gaueko iratxo ezezagun batez ari zen. Gizonak esaten zuen iratxo hau gauez ateratzen dela. Esaten zuen iratxoak ez duela beste munduko gauza arrarorik egiten, ohean zaudelarik gelan nola sartzen den eta zure gainean nola jartzen den sentitzen ahal dela eta kito. Baserriarra gauza leun eta txiki batez ari zen baina, dena den, bularrean sentitzen zen pisuz bakarrik hitz egin zezakeela onartzen zuen («berun bola handi baten adinakoa»), ez baitzuen sekula santan argipean ikusterik izan. Iratxoa, nonbait, egunsentia baino lehen desagertzen zen, besterik gabe, baserriarra guztiz iratzarturik eta larriturik utzirik. Hau zen guztia. Nik, hura irakurritz, agian katu arrunt batez ari zela pentsatu nuen. Nire katuak (Xaxa) horrelakoak egunero egiten baititu (ro-ro-ro-ro), eta ohikoa izaten da arratsaldeko lo-kuluxkatik halako iratxo baten azpian iratzartzea. Holakoetan baserriar haren gaueko iratxoaz oroitzen naiz, baina ni ez naiz batere larritzen. Gaur gauean diferentea izan da. Ohean sartu naizenerako halako pisu bat sentitu dut bularrean. Lokartzen saiatu naiz eta ezin izan dut. Halako larritasun bat sartu zait. Bularreko pisua gero eta handiagoa zen (eta ez zuen ro-ro-ro-ro egiten). Agian bene-benetako iratxo bat izango zela otu zait bat-batean. Agian egunsentia arte iraungo zuena. Eskua luzatu eta argia piztu dut. Ez zen iratxoa. Ez zen Xaxa. Udazkena zen, barru-barruraino sartua, bere eurite eta guzti, bere igande arratsalde zikinekin, dagokion bizitari buruzko buruhauste neketu eta atsekabeekin. Baserriarrek arrazoi osoa zuen: berun bola handi baten adinakoa, aizue. ●



# Ez naiz ni zurekin ahaztu dena

**Nire furgoi beltza.** Berrogeita sei urte ditut —eta gero eta lodiago eta burusoilago nago—, bi seme-alaba dauzkat —eta biotako batek, semeak, bihotza erdibitu berri dit, Juan Kruz deitzeari uko egin eta Jon izenaren aldeko hautua eginez, seguru asko irakasle talibanen batek burmuina ikuzgailuan sartu eta gero—, ez nago bananduta —Erriberri kaleko Xabierko San Frantzisko elizan ezkondu nintzen, duela 18 urte, betiko neska-lagunarekin—, Unzun etxeko tresna elektrikoak saltzen ditut —duela 26 urtetik—, Zabalgunean bizi naiz —Tafalla karrikako gurasoen etxetik 50 bat metrora—, arratsaldero Monte Carlo tabernan musean aritzen naiz —ikurrina baino *vascoagoa* den Gerardo bikotekidearekin, **Pancha Navarrete** baino espainiarragoa den taxista bikote baten aurka— eta mus partidetan kuba-librea besterik ez dut edaten —zazpi urteko Habana Club ronaz eta limoi txorrotadatxo batez. Gin-kas, gin-tonic, vodka, enparaurik ez—.

**Bye bye gizontxo.** Horra hor nire bizi-tza. Ezin uka daiteke gizon grisa naizela, edo, **Patziku Perurenak** aldarrikatzen duen koloreen erabilpen euskaldun jatorrean, gizon urdina. Igandeetan amaginarrebarenera bazkaltzera joaten garelarik —gure etxetik ehun bat metrora, emaztea ere Zabalguneko baita— betiko eltzekoaren ondotik legatza edo azpizuna —bata



Lou Reed, Euskadi Irratiko esatari Bingen Amadozen iguala da.



Ruper Ordorika, belarrondoko bizarra duen abeslari oñatiarra.

edo bestea izaten da beti— mahaigaineratzen diguten ikustea izaten da, niretzat, asteko unerik zirrargarriena. Horregatik gustatzen zait **Ruper Ordorika**, aspertuentzako musika aspergarria egiten duelako, hori bai, betiere finki, samurki, maisuki.

**Nor da?** Ordorikak disko berria grabatu du, **Lou Reedekin** —Euskadi Irratiko esatari **Bingen Amadozen** iguala den abeslariarekin— arituriko musikariren baten laguntzaz. Nik beti Unzun erosten ditut diskoak, etxeko langileei beherapena egiten digutelako, eta oñatiarraren azken grabazioa oraindik ez da heldu Mercaderes kaleko saltokira.

Nolanahi ere, heltzen delarik, ez dakit erosiko dudana ala ez.

**Aspaldian.** Egunkarian irakurrita jakin dut 'Hurrengo goiza' dela CD berriaren izena. Nonbait, musika kritikari batek Ruperren musikaz idatzi zuen behin parrandarako baino gehiago hurrengo goizean biharamunak jota entzuteko aproposa zela. Belarrondoko bizarra duen —patiladun, Elhuyarren arabera— musikariari aburua gustatu zitzaion, eta hortik datorkio izena diskoari. Eta hortik datozkit diskoa erostearen inguruko zalantzak.

**Erruduna.** Nago garai batean alkan-

dora beltza erantzten ez zuen eta egun kolore biziko atorrak —**Fernando Arretxereren** jitekoak— darabiltzan musikariaren jarraitzaileen artean oso gutxi direla oraindik astebururo parranda egiten dutenak, eta, beraz, diskoa hurrengo goizean biharamunak jota entzuterik dutenak. Nago gehienok ni bezalako gizon-emakume urdinak garelara, larunbat gauak zapping azkarrean igarotzen ditugunak, **José Luis Moreno**ngandik ihesean. Nago traizioa egin digula. Nago, Ruper, ez dudala zure diskoa erosiko. Beno, agian bai, baina, otoi, izan zaitez fidelago gurekin, zeure buruarekin. Ez naiz ni zurekin ahaztu dena...



## panpilonia zirkus

Enrike Diez de Ultzurrun

### Ezkabako txakolingorria

«Hago isil isilik, lau baso edanik ere, ez dik jotzen». «Ezetz? Ederki pinpirintzen dik». «Kia! Ez dik gradurik». «Bost axola! Zigarren koadroan, behiñipein, aittun zahar horrek sudurra aski gorritua dik...». Bi adineko dira, biak tematsu, esku artean baxoerdi bana ardo darabiltela. Mende bat lehenago bizi izatera, bertzelako edaria edanen zuten, ziur aski. Txakolina, jakina, txakolindegietan edaten zen, hau da, batere apaingarririk gabeko taberna zuloetan. Ez zuen oso fama ona baina iruinxemeek orduak eta orduak ematen zituzten hiriko txakolindegietan, hiriko alabak ez baitziren sartzen.

Iruñea inguruko ardantzek gradu gutxiko ardoa ematen zuten, ardo zaharminduxea, garratza. Ezkabako txakolina zen onena, Ezkabamendiko

eguzki-begian hazitako mahats zapalduak ematen zutena. Gehienetan, ez zen urte osoan saltzen, ekoiztutakoa bukatu arte baizik. Edateko moduan zegoenean, atarrietan maindire edo oihal zuria zintzilikatzen zen edota sotora jaisteko bidean zegoen gortinari korapiloa egiten zitzaion. Barnean upelarik baizik ez zegoen eta aulki txiki batzuk, gehienez ere. Franko baziren, Jarauta aldean sei zazpi: Bidegaina, Sastriko, Galbete, Eraso anaiena, Sagastibeltza... San Lorentzo karrikan, San Lorentzikò deitzen zitzaiona, eta Antsoleaga karrikan —garai hartan Tecenderías kalea, Iruñeko famatuena, hots, Kulantxo izenekoa, Maissonave hotela gaur egun dagoen tokian, zehazki. Iruñeko jendea ere, arratsalde pasa edo, hiri inguruko txakolindegietara joaten zen txintxurra



Jabier Zigaren «Chacoli» nargolana, 1915koa.

bustitzera: baziren Artikan, Aitzoianen, Berriozarren, eta ezagunena Orkoiengo benta zen.

Ardoetan bezala, bazen txakolin zuria, gorria eta beltza, eta «tintoari» txakolin-gorri erraten zitzaion Iruñerrian. Txakolin pinta 0,15 pezetan saltzen zen, irakindako upelatik bertatik pitxerretara bota eta basoan zerbitzatzen zen, Jabier Ziga pintoreak, 1915ean, mihisera eramandako irudian ageri den bezala. Jendea txakolindegian sartu eta geldi. Hantxe ematen zuten denbora, huntaz eta hartaz solasean. Oraindik, ez baitzegoen txikiteoa edo poteoaren usadiorik.

Txakolinak ohorezko tokia izan du XX. mendeko Iruñeko herri-kantu eta kopletan. Izan ere, hori agerikoa da Turrillas maisuak peñendako egindako letretan, baina aitzindari izan zen Ramon Ollakarizketa, «Olla», iruindar xeble hura, berak asmatutako «El pispiri» dantza-kantu famatuaren bidez: «Viva San Fermin, pirispispis, pirispispis... y también el txakolin».

# Andoni Iso

GAZTE KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

## «Kontseiluak ez du gazte taldeen freskotasunik galdu»

### soslaia

Andoni Iso, Nafarroako Gazte Kontseiluko lehendakaria, Extremaduran (Espainia) jaio zen, baina aspaldi bizi da Iruñean. 25 urte ditu eta NUPen tesia egiten ari da, Soziologia karrera bukatu eta gero. Hain zuzen ere, Eraldatu ikasle elkartearen bidez sartu zen Kontseiluan. Bi urte daramatza lehendakari lanetan.

Kontseiluan 70 bat talde daude, baina zenbaki hori ere ez da oso fidagarria Nafarroako gazte taldeen osasuna aztertzeko: «Kontseiluan sartzeko 50 laguneko taldea behar da, eta zenbait herritan ez daude 50 gazte ere», kexatu da Andoni. «Elkarteen Astean 400 bat gazte elkarte biltzera ailegatu gara».

Kontseiluak behin eta berriz egiten du talka Administrazioarekin. Nafarroako Gobernuak 6.700.000 pezeta (268.000 libera) eman dizkio aurten. Diru laguntza izozturik dago azken urteetan, eta bakarrik Kontseiluaren barne funtzionamendua ordaintzeko erabiltzen ahal da. Aktibitate bakoitza finantzatzeko dirua han eta hemen bilatu behar izaten dute gazteek.

zarran, irailean eta urrian Sakanaan, eta azaroan Iruñean. Aurten oso balorazio ona egin behar dugu, iaz baino anitzez ere jende gehiagok hartu baitu parte.

■ **Duela lau urte, Kontseiluaren lehendakariak NAFARKARIAN onartu zuen Kontseilua batez ere Iruñerriko gazteekin aritzen zela, baina hori aldatzeko lanean ari zela. Aldatu egin da hori?**

Bai, egia errateko asko aldatu da. Kontseilua hedatu da Iruñetik kanpora, eta gehiago hedatuz doa. Lehen kontakturik ez genuen eremu batzuetan ari gara

**Nafarroako Gazte Kontseiluan lan eta lan ari dira egunotan. 'Gozamenez' programa bukatu berri dute; udazkeneko gazte eskoletan murgildurik daude; abenduan osasun topaketak egingen dituzte Tuteran; eta urte bukaerako batzar orokorra prestatu behar dute. Eta, hala ere, Kontseiluan ez dute batere espontaneitateirik galdu.**

«*Ekitaldiak gazteen parte-hartzearekin eginez gero, ongi aterako dira; gainera, sortze prozesuan hainbat trebetasun landuko dituzte gazteek*»

orain. Tuteran, adibidez, orain bi programa ezberdin ari gara egiten. Jendea Kontseiluan parte hartzen interesaturik dago; bertako elkarteekin bildu nahi dute, ezagupenak eta gauzak egiteko ahalmena handitzearen.

■ **Iruñeko gazte plana kritikatu zenuten. Zer iruditzen zaizue Udalak abiatu gaueko aisialdi kanpaina?**

Idea oso ongi dago, baina, ideia garatzeko prozesua txarra izan da, ez baitute gazteen eta gazte elkarteen parte-hartzea kontuan hartu. Programak ez luke izan behar aisialdi espazioak

betetzeko soilik. Aisian prebentzioa landu beharko luke. Administrazioak guzian diruarekin gazteen eskaerei erantzun beharko lieke, prebentzioa landu eta parte-hartzean sakondu. Baina Udalak ekitaldiak eskaintzen ditu zerbitzu soziokulturalako beste enpresa bat balitz bezala. Hori negargarria da. Ekitaldiak, jendearen parte-hartzearekin eginez gero, ongi aterako dira; gainera, sortze prozesuan hainbat trebetasun landuko dituzte gazteek. Administrazioa erakunde urruna ez ikusteko modua da hori.

■ **Zer galtzen da gazte elkartearen instituzionalizazioan?**

Gazte taldeek espontaneitate handia dute, freskotasuna. Akaso, hori galdu ahal da. Nik uste dut Kontseiluan ez dugula galdu. Burokratizaziotik ihes egiten dugu izurria balitz bezala, erabateko paralisira eramaten baitu.

Hau ez da administrazio bulegoa. Administrazio lanetan Iñaki edo Mikel egon ordez funtzionario bat balego, gazteek Kontseilua galduko genuke lanabes bezala. Halere, Kontseiluko zenbait talde burokratizazioaren alde daude. Zorionez, ez dira gehiengo, nahiz eta pisu politikoa handia duten.

■ **Azken lau urteetan izozturik izan duzue Nafarroako Gobernuko diru laguntza. Horrek zuen ekinbidea mugatu du?**

Gure betiko eskaera da Kontseiluari eman beharreko diru kopurua handitzea. Baina UPNk ezetz dio. Eta beste paradoxa bat: dirua ematen digute barne funtzionamenduari eusteko, baina ez ekitaldiak finantzatzeko. Hori Kontseiluaren lana mugatzeko modua da. Izan ere, dirua bilatzen ematen dugun denbora eman genezake ekitaldiak zabaltzen. Diru gehiagorekin gauza gehiago egin genezake, eta indartsuagoa izan. Baina Kontseilua ez handitzeko ahaleginetan ari dira. Ez dute lortuko. Kontseiluak eta gazte elkarteak irudimen eta ahalmena soberan dute baliabideak nonahi aurkitzeko; are gehiago guk baliabide horiek ez izatea nahi dutenean. Irudimenarekin gauzak aitzina atera ahal dira.

→ Asier Azpilikueta



## Nafar Kronika

Martxelo Sotes

### Felipe Borboikoa, ezker abertzalekoa?

Felipe Borboikoa Nafarroako lurretan barrena ibili da Miguel Sanz presidentearen gidaritzapean, eta bisita honen ondorioz zenbait gauza erraten ahal dira:

Bat. Azkenean ulertu dugu errege-erreginei eta printzei Alteza deitzearen arrazoia. Miguelico Sanz, Markotegi eta konpainia Felipe-ren segidan ikusita, Gulliver-en Bidaien liburua ilustratzeko argazkiaren aitzinean geundela zirudien (zuek asmatu nor zen Gulliver). Edo akaso Hamelingo xirulariaren irudia zen, herrialde osoko arratoi-sagutuok bere musika-ekin dantzan gibelatik zituela?

Bi. Felipe-ren bisitak ez du herritarren ikusmin handiegirik piztu. Bere sekitorioak eta zaindaria gehiago ziren inguruan, Oinezko herritarak baino. Hori bai, plazara hurbildutako gizaseme eta, batez ere, emakumeen lausenguak jaso ditu Felipek. Orokorrean, interes gehiago sortu du Errege Etxeko maiorazkoa noiz esposatuko den Nafarroako bisitaren ondorio politikoak baino.

Hiru. Miguelico Sanz-ek euskal kulturaren eta folkloreaken aldeko solasak egin ditu orain ere. Aurrekua kantatzearena eta Agur Jaunak dantzatzeara atzenuak zirela, Baztango dantzarik ezagunena *Multidanza* omen da, hau da, Aurrekua, Agur Jauna, jota, mutildantza eta fandangoa elkartzen dituen, nonbait. Eta *Multidanza* horren hasieran «Auniz urtez» erraten omen da, gainera. Hau porrusalda!

Lau. Nafarroako egunkari batean, Felipe Borboikoa liburua batean sinatzerakoan egin dako akats ortografiko nabarmena azpimarratzen dute. Akats ortografikoa gaztelaraz izan zen nonbait, Bertziko Jaurrerian euskaraz egindako agurrean botatakoa ez baitute kontuan hartu izanen segur aski. Diskurtso luze baten akabailan, zera erran zuen: «Mila ezker, ETA beti arte». Fernando Barrenak, Euskal Herriaren egoera azalduz Iruñean emandako txostenaren ondorio? Ezker abertzalearen eta erakunde armatuaren isilpeko sostengu disimulatua? Eta Miguelico eta konpainia esku-zartan txaloka. Garzon, kontuan hartu hau, guttiago erranda eta eginda bada jenderik kartzelan eta!

## gure aukerak

### MUSIKA

- ▶ **Barañain:** Anarik kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, kultur etxean.
- ▶ **Iruñea:** Keltiar Aldea taldeak O'Connors tabernan joko du gaur, 23:00etan.
- ▶ **Zangoza:** Zorongo taldeak flamenkoa, jazza, bluesa eta arabiar musika uztartuko ditu bihar, 20:30ean, Karmenko auditorioan.
- ▶ **Elizondo:** Kantiruki taldea Arizkunenean izanen da igandean, 20:00etan. Ostegunean, berriz, Barañaingo kultur etxean kantatuko du, 20:00etan.
- ▶ **Burlata:** Peta Zteas taldeak Black Rose tabernan joko du asteartean, 20:30ean.

### ANTZERKIA

- ▶ **Atallu:** Gus Marionetas taldeak *Marrubizko printzesa* haurrentzako antzezlan eskainiko du igandean, 17:30ean, udaletxean.
- ▶ **Olazti:** Duo en la Lona taldeak *Munduko zirkurik txikiena* ikuskizuna eskainiko du igandean, 18:00etan, pilotalekuan.
- ▶ **Mutiloagoiti:** Txamuskina taldeak *Behin batean...* lana taularatu du igandean, 18:30ean, kultur etxean.

### BERTSOLARIAK

- ▶ **Doneztebe:** Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira plazan gaur, 12:00etan.
- ▶ **Antsoain:** Bertso afaria eginen dute gaur Txinparta elkarteak, 21:30ean, Amaia Agirre eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.
- ▶ **Etxarri-Aranatz:** Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jokin Sorozabal, Xabier Silveira eta Nerea Elustondo bertsolariek txapelketa nagusiko lehen finalurrea jokatu dute bihar, 18:00etan, pilotalekuan.
- ▶ **Bera:** Bihar, 21:00etan, bertso

afaria eginen dute Agerra mendialdearen elkarteak, Jesus Mari Irazu eta Sebastian Lizasorekin.

### HITZALDIAK

- ▶ **Lizarra:** Xabier Arzalluzek karlismoa izanen du mintzagai gaur, 20:00etan, kiroldegiko erabilera anitzeko aretoan.
- ▶ **Iruñea:** 1976ko Jurramendiko hilketen gaineko bideo bat aurkeztuko du bihar Jose Angel Perez Nievasak, 19:00etan, Larraona ikastetxe nagusian.

▶ **Iruñea:** Mikel Asurmendi kazetaria Afganistango gerraz mintzatuko da asteazkenean, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

▶ **Zangoza:** Bittor Aierdik (Elkarri), Xabier Ollok (Gesto por la Paz) eta Jose I. Meijidek jazarpeneko indarkeria eta bake konferentzia aztertuko dituzte ostegunean, 20:30ean, kultur etxean.

### BESTELAKOAK

▶ **Antsoain:** Txiste afaria eginen dute gaur, 22:00etatik aurrera, Zulo Alai elkarteak.

▶ **Iruñea:** Astelehenean, *Gure inguru interkulturala* izeneko lan saioa eginen dute 19:30ean, Nabarrera zentroan.

▶ **Iruñea:** Heldu den astean, astelehene ostiralera, giza eskubideen hezkuntzari buruzko ikastaroa eginen dute NUPen. Aulategian, 18:00etatik 20:00etara. Sarra, librea.

▶ **Iruñea:** Zaldiko Maldikon larunbateko arratsaldea jokoan igaroko dute. Musa, partxisa, tribiala eta xakea euskaraz, 17:30etik goiti.

● JOXE LACALLE



### Txipli txapla pun

Gaztainak erretzeko labe ibiltari hori asteartean irekitzen ez badute ere, egun horretan jakin genuen nola banatuko dituen gaztainak Nafarroako Gobernuak. Hainbat urtetako irizpideak aldatu eta gaztelaniazko hedabideei gaztaina gehiago ematea ebatzi du Gobernuak. Are gehiago, Nafarroan gaztaina gehien duen egunkariari iaz baino hamar bider gaztaina gehiago eman dizkiote. Eskuetan duzun periodikoari, aldiz, ez diote batere gaztainerik eman, nahiz eta behar-beharrezkoak dituen. Gaztaina pilongarik ere ez digute eman...

- Aizu, nola erraten da gaztaina pilonga euskaraz?
- Elhuyar hiztegiak gaztaina zimel dakar.
- Hator, hator, mutil etxera; gaztaina zimelak jatera, dio kantak. Baina gaztaina pilongak (zimelak, beraz) ez dira jaten!
- Orain bai ez dudala tutik ere ulertzen.